

Irakurzaletasuna irakurketaren gozamina sustatzen duen proiektua da.

Proiektu honek irakurzaletasuna bultzatzen du plataforma digital baten bidez: **Elibrum**.



Plataforma horrek aisialdiko irakurketa sustatzen du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Irakurtzeko ohitura piztatzeaz gain, plataformak komunitate irakurle bat sortu nahi du, ludifikazio-elementuak erabiliz eta autonomia eta gozamina bezalako balioak sustatuz. Helburu hauek ezinbestekoak dira ikasleen ikaskuntza garatzeko. Amurriko Udal liburutegiaren laguntza ere badu.

Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategian (2024 - 2027) sartzen da, Hezkuntza Sailburuordetzaren eskutik.

## PROGRAMAREN HELBURUA

Helburua da “*irakurri irakurtzeagatik*”, liburuez disfrutatzea sustatzen duen ingurune lasai eta ludiko batean.

## NORI DAGO ZUZENDUTA?

Aurten programa **DBHko 1. eta 4.** mailako ikasle guztiei zuzenduta dago.

## NOIZ EGINGO DA?

Irakurketa PROIEKTU KOMUNITARIO orduan egingo da; erlijio irakasgaia aukeratu duten ikasleak ere parte hartuko dute programan.

## NOLA IRAKURRI?

Irakurketa honelakoa izan daiteke:

- elkarreki ozen (hobe irakasleak irakurtzen badu)
- banakakoa, ahots baxuan
- 15 edo 20 minutu (beharrezkoa izatekotan atsedendiekin)
- irakurketa komentatua

Irakurketa-denboran giro lasaia lortu behar da: **isiltasun**, **lasaitasun** eta **ongizatezkoa**. Gozamen hutsagatik irakurtzea indartu nahi da.



## IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO PROIEKTUA:

*irakurtzeko gaitasuna indartzeko*



## ZERTAN DATZA PROGRAMA?

**Tutoreak** ikasleekin egongo dira ikasgelan. Haiek arduratuko dira irakurketa-saioaz: astero saio bat. Gutxienez, 25 minutu. Ikasturte osoan mantenduko da.

Euskara eta gaztelania irakasgaien **derrigorrezko irakurketak** irakurriz hasiko dira ikasleak. Beste irakasgaiaren batean derrigorrezko irakurketa proposatzen bada, zerrenda honi gehituko diogu.

Bestalde, irakurketa horiek amaitzen direnean, hainbat irakurketa dituzten kutxak eraman daitezke ikasgelara, ikasle bakoitzak gustuko duena hauta dezan.



Gogora ezazue **eLibrum** **plataforma** duzuela. Irakurketa gehienak daude plataforman.



## ZERGATIK DA GARRANTZITSUA SERIOTAN HARTZEA?

- ★ Irakurketak hizkuntza eta ulermen-trebetasunak hobetzen ditu.
- ★ Irudimena estimulatzeko du, enpatia garatzen du eta gaitasun kritikoa indartzen du.
- ★ Irakurtzeko ohiturak lotura zuzena du arrakasta akademikoarekin eta garapen pertsonalarekin.

